

XABIER LETE

Xabier Lete 1944ko apirilaren 5ean sortu zen Oiartzunen (Gipuzkoa). 2010eko abenduaren 4an hil zen Donostian. Kantaria hau 66 urtez bizi zen.

Xabier Lete abeslaria, idazlea eta poeta izan zen eta “Ez Dok Amairu” taldean parte hartu zuen. Xabier Lete Donostiako Herrerako La Salle Ikastetxean egin zituen ikasketak. Batxilleratua amaituta, Tarragonara joan zen ikasketa teknikoak egitera. Euskal herrira bueltan, Pasaiaiko lantegi batean sartu zen, eta han hasiko zen lehen poesiak idazten.

Xabier Leteren kanta ospetsuak hauek dira: Xalbadoren heriotza , Seaska kanta eta Habanera.

Xabier Letek Euskadi Saria eta Euskarazko literaturazko saria jaso zituen.



Kanta

Gizon arruntaren koplak

<https://www.youtube.com/watch?v=GjOQZfL-9uM>

Gizon arruntaren koplak (Letra)

Kantatzera noazu
Bertso bat edo bi
Herenegun jarriak
Gizona arruntari.
Antoniyo, Lorentzo
Edo Joxe Mari,
Gauza ederra denik
Ez ukatu neri.
Goizean jeikitzean
Lehenbiziko gauza,
Aba zabaldu eta
Jazten ditut galtzak,
Muturra garbitzean
Nolako zalantzak
Ezin kendurik nabil
Loaren orratzak.
Kafesnia hartuta
Horrekin batera
Ahal baldin badet
Behintzat
Noa komunera:
Aurrian papera ta
Atzian papera,
Periodikua letuz
Ilustratzen gera.
Etxetikan lanera
Noa nahiko mantso.
Realak kuarto-uno
Galdu zuen atzo,
Kalian bi zakur ta
Beste hiru atso,
Egun on don Pepito
Eta don Alfontso.
Gauzak gaizki dabilta,
Hau da komeriya,
Afganistan-en gerra
Piztu zuten iya,
Tokatzen baldin bazait
Aurten loteriya
Erosiko beharko det

Zitroen berriya...
Ongi egon omen zan
Tolosan feriyen.

Ongi ikasi nuen
Gaztetan baltsian,
Karterari kontutzen
Txamarra galtzian:
Artxandako haiziak
Beruak baizian,
Ederki egoten zen
Ohearen atzian.
Ni lana egina naiz
Semiak hazteko,
Haiek eskola ona
Xuxen ikasteko,
Ikasi eta gero
Lanian hasteko,
Ez ditezela izan
Bazterrak nahasteko.
Semeen semetatik
Baidatoz semiak,
Batzuek arrak eta
Bestiak emiak,
Batzuek loiyak ta
Beste batzuk miak:
Honel jarri zuen
Jaunaren legiak.
Gaurko eguna ere
Bota dugu, bada
Gizon okupatua
Gauza ederra da.
Asko gustatzen baitzait
Oiluaren salda,
Mugairen hasten baita
Belateko malda.
Ez naiz ni gizon txarra,
Baina, zer arraio,
Fidek Castro izateko
Ez bainintzan jaioi;
Musian egiten det
Makina bat saio,
Andriaren onduan
Afaldu det aio,
Orain ohera noa
Bihar arte aio.

Egileak: Ane Garaikoetxea eta Aimar Lizasoain